



ERAIKINAREN DATUAK

Izena eta aldaerak: Aizeleku, Berruetazar.

Auzoa, udalerrria: Santiagomendi., Astigarraga.

Dolarearen kokapena: Baserriaren mendebaldeko eranskinean. Lehen solairuan du toleara eta behean, sotoan, upelategia. Dolarea da hain zuzen Aizelekuko eraikinik zaharrena, gainerkoa berritu egin baitzuten.

Jabea: Alberto Ruiz.

DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK

Kronologia: XX. mendekoa.

Iraunaldia: Duela 6 urte utzi zioten sagardoa egiteari, horretan aritzen zen baserriko aitona hil zenean.

Zenbait datu: Batez ere etxerako egiten zuten sagardoa. Egiteari utzi baino urtebete lehen berritu zituzten zurezko aska eusten duten soliba edo azpi sunbilak, aurrekoak egoera txarrean baitzeuden.

Egungo erabilera: Trastelekua.

Kontserbazio egoera: Ona.

TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK**Dolare-prentsa:**

Askaren erdian zutitutako ardatza du, goiko erdia pasatxo harizatua. Zati horretan muntatua du burua, estutzeko karraka mekanismoa eta egurrezko urkaz osatua. Burdinazko palanka bidez eskuz eragin behar da buruak ardatzean gora eta behera egin dezan. Zurezko aska du, kantalerekin, eta soliba edo azpi sunbilek eusten dute. Sotoan ardatza azpialdetik eusten duen urkaren pareko egurra eta torlojua ikus daitezke. Lurzoru naturala du sotoak.

Dolarearen osagarriak:

- Txorrotak, giltza edo trumukuak eta patsolak.
- Barrika bat
- Sagar bilketarako zare eta kizkiak.

Argazkiak: 11.01, 11.02, 11.03.

GAKO-HITZAK

Eskuzko trakzioa, zurezko aska, Astigarraga.

OHARRAK

Sagastiak mantentzen dituzte, baina orain sagarrak gertuko sagardotegi batera saltzen dituzte.

GALDETEGIA

Informatzailea: Alberto Ruiz.

Datu bilketaren egilea: A.Agirresarobe, J.Tellabide.

Datu bilketa data: 2010eko martxoaren 24a
